



SALBURUA, Betoñuko urmaela

**NATURA,
HIRITIK GERTU-GERTU**

Betoñuko urmaeletik eta ingurunetik doan ibilbidearen bidez, ekosistema paregabera hurbilduko gara. Ekosistema horrek urarekin du lotura; hortaz, mota askotako ur-hegatziren eta beste animalia-espezie batzuen babeslekua da; horietako batzuk desagertzeko arriskuan daude. Era berean, ur-landaretza oso baliotsua ere dugu bertan, eta flora-espezie batzuk oso bitxiak eta gutxitan ikusteko modukoak dira.

Bidean aurkituko ditugun panelek bertako flora- eta fauna-espezie garrantzitsuenak azalduko dizkigute, esaterako, kopetazuria, murgila, lezkari karratxina, baso-igel jauzkaria, lezka, lema, malba zuria etab.







- Gomendatutako ibilbidea
- Eratzun Berdearen Bira
- Desbideratze interesgarria
- Bidea

- **Luzera:** 2,4 km
- **Denbora gutxi gorabehera:** 40 minutu
- **Pista mota:** bide-zorua
- Bidea egokia da **haurren aulkietarako**
- **Nola iritsi:** L5, Juan Carlos I.a kaleko 27. zenbakiko geltokia

- Hasiera-puntua
- Kirol-instalazioak
- Iturria
- Hegaztien behatokia
- Atsedengunea
- Taberna-jatetxea
- Ostata
- Informazio-ohola
- Aparkalekua
- Autobus-geltokia
- Kontuz

IBILBIDEA

- Betoñuko urmaela inguratzen du ibilbideak **1**. Salburuko parkearen sarreran hasiko da; Salburua bulebarrean dago parkerako sarrera.
- Ezkerrerako lehen bidea hartuko dugu, eta Eratzun Berdearen Biraren jarraibideei jarraituko diegu, ibilbidearen erdia baino gehiago bira horretatik baitoa.
- Ur gaineko zurezko pasagunea zeharkatu ondoren, Hezeguneen ibilbidera iritsiko gara, eta bideak eskumarantz egingo du. Zenbait metroz paralelo jarraituko dugu kale horrekiko.
- Gero berriaz eskuinerantz joango gara eta makaldi baten paretik doan bidexka hartuko dugu **2**.
- Pixka bat aurrera joanez gero ezkerrera desbideratzeko bidea ikusiko dugu, eta hortik Eratzun Berdearen Birak jarraitzen du; Durantzarreko urmaela gurutzatuko dugu **3** zurezko zenbait pasagunereren bitartez, eta Ataria zentrora (Salburuko Hezeguneen Interpretazio Zentroa) eta Alegria ibaiaren ibilbidera joango gara. Desbiderapen hori utziko dugu eta zenbait basoren eta palaxuren artean jarraituko dugu.
- Arkautiko urmaelarekin lotzen den ezkerrerako beste desbiderapen bat atzean utziko dugu (gidaren 2. ibilbidea) eta Salburuko zelaietatik hasierako puntura itzuliko gara **4**.



INTERESGUNEAK

1 Betoñuko urmaela

Hiriaren ekialdean eta Salburua auzoaren parean, Betoñuko urmaela dugu Salburuko aintzira-taldea osatzen dutenen artean, mendebalderago dago, eta lehena leheneratu zuten 1994. urtean, XX. mendearen erdialdean lehortu baitzuten.

Gaur egun, gutxienez urtean bederatzir hilabete urez beteta dago urmaela, eta horri esker, aintzira-landaretza aberatsa du. Aintziraren bitxitasun botaniko nagusia ondo zaindutako lema-masa zabala dugu: ur-landareak dira, eta Estatu osoko masa adierazgarriena dugu aintzira horretan. Horrekin batera, beste ur-espezie batzuk ere hazten dira, esaterako, lezkak, lirioak (udaberriak lore horiengatik ezagutuko ditugu) eta ezpata-belarrak, besteak beste.



2 Makaldia

Betoñuko makaldia orain dela zenbait hamarkada landatu zuten San Tomás errekaaren ertzean, eta makalek tamaina handia dute. Egun, horien egoera nahiko larria da, eta hiltzen diren heinean, baso-landaketak egiten dituzte eremu hori lizardi eta harizti bihurtzeko; izan ere, Arabako Lautadako ibaietako eta eremu hezeetako berezko basoak dira.

3 Durantzarreko urmaela


Betoñuko eta Arkautiko urmaelen artean Durantzarra aintzira dago; gutxi gorabehera 4,5 hektareako zabalera du. Ingeniaritza hidraulikoko proiektu eredugarri bati esker, 2003ko neguan bete zuten, eta Salburuko hezegunea suspertzen lagundu zuen.



4 Salburuko zelaia

Zenbait urtez aerodromo zahararen pistak egon diren lekuan kokatzen dira Salburuko zelaia. Ondoren eremu horiek ardi-multzoen larreak izan ziren, eta egun hainbat gasteiztarrek lautada horretan egiten dute topo, leku ezin hobea baita aisialdirako eta kirola egiteko, adibidez,

aerodelismoa egiteko edo kometak hegan jartzeko. Izan ere, Salburuko zelaietan askotan kometen inguruko zenbait ikuskizun, jai eta jaialdi egiten dira: hemengo ekitaldiak izaten dira, baina baita nazio eta nazioarte mailakoak ere. Zenbait kirol taldek antolatzen dituzte ekitaldi horiek.



ZER EGIN DAITEKE

Vital bideak

Vital bideak ibilbide autogidatu batzuk dira, eta horien bidez Salburuko parkeko eremuetatik ibil zaitezke eta flora- zein fauna- aberastasuna ezagutu ahal duzu. Parkeko bideetako zenbait gunetan informatzeko panelak ikus ditzakezu, zenbait koloretakoak dira, eta tokiko espezie ezagunen ezaugarriak eta bitxitasunei buruzko informazioa eskaintzen dute. Ezinbesteko bide urdina ibilbide ornitologikoa da, horiaren bidez narrastia eta anfibioak ezagutuko dituzu, zuriak intsektuak erakusten ditu eta berdeak tokian tokiko landare mota esanguratsuenak azaltzen ditu.





BITXITASUNAK

Salburuko hezeguneak Espazio Natural Babestuen Natura 2000 Europar Sarean daude. Salburuan bizi den espezie baliotsuenetakoa bat bisoi europarra da, espezie larriki mehatxatua baita. Leku askotan –Salburuan, besteak beste–, zenbait ekimen eta programa jarri dira abian animalia horiek leku horietan jarrai dezaten eta gerora begira ibaietan eta hezeguneetan bizi daitezen: itxian haztekoak eta populazioak indartzekoak.

Ekimen horien guztien artean, **Europar Batzordeko LIFE** programa nabarmentzekoa da, europar bisoia zaintzeko proiektuak garatzen laguntzen baitu. Vitoria-Gasteizko udalak parte hartzen du programa horretan beste bazkide askorekin batera. Proiektu honen ekintza giltzarrietako bat espeziea itxian haztea da; amerikar bisoiaren mehatxua baztertuta, europar bisoiaren populazioak indartuko dira, eta egokitzen hartutako lekuetan sartuko dira. Salburua eta Zadorra ibaiaren erdiko tartea eremu argienetako batzuk dira espezie hori suspertzeko.